

ZABALATIK ZABALETARA.—Ez uste izan pilota jokoaren hizkuntzaz ari garenik, *zabaletik zabaletara*. Ez, ez zenduke igarriko, irakurle. Gure *lapsus* batengatik da eta zuzenketarako kontu ematera gatoz, etxeokoari ere adabakiak egin beharrez.

Aurreko *Egan*-en (5-6 zenb.) B. Gandiagaren «Christmak» zeramaten pentagramak Zabaletarenak zirela jarri genuen 73. orripeko oharrean, Zabalarenak jarri beharrean. Eta, alderantziz, 148.ean Zabala jarri genuen Zabaleta behar zuen tokian. Huts honen zuzenketa irakurlearen esku uzten dugu. Eta bi euskaltzale pertsonaiei gure barkamena eskatzen diegu. Ongi ulertuko dute biak, mentalitatez ere zabalak direnez gero.

J. S. M.